BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

Euskara mailan aholkularitza eta laguntza teknikoa emango duen zerbitzua

1- ZERBITZUA KUDEATZEKO HELBURU NAGUSIAK

Zerbitzu kontratu honen bitartez, Lekeitioko udalari aholkularitza eta laguntza teknikoa eman behar zaio euskara mailan zerbitzua kudeatuz.

Alde batetik, momentu honetan, Administrazioaren VI. Plangintzaldian (2019-2022) gaude. Kontratu honen iraunaldian plangintzaldi berri baten sartuko gara. Ondorioz, Udalaren Erabilera Plan berri bat egin beharko da. Honez gain, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) egin beharko da; baita urtez-urte Erabilera Planaren Kudeaketa Plana.

Bestetik, genero ikuspuntua zeharkakotasunez jorratu beharko da: aurreikusten diren ekintzen diseinuan eta jaso beharreko datu guztietan sexu aldagaia kontuan hartuz.

Euskara zerbitzua hiru lan arlotan gauzatu beharko da:

UDAL BARRURA BEGIRAKOAK

- Udaleko euskara zerbitzuaren ardura kudeatzea.
- Itzulpen labur eta puntualak egitea.
- Euskarazko testuen zuzenketak egitea.
- Administrazio publikoetako dirulaguntza tramitazioak bideratzea.
- Udaleko euskara zerbitzuaren aurrekontua proposatu eta jarraipena egitea.
- Aurrekontuko kontuak kudeatzea.
- Udalaren Erabilera Planaren VII. plangintzaldirako Plan Estrategikoa landu eta proposatzea.
- Udal barruko erabilera planean jartzen diren helburuak betetzeko urratsak egitea, UEMAren laguntzarekin.
- Udal barruko erabilera planaren jarraipena egitea, UEMAren laguntzarekin.
- Udalaren Erabilera Planaren tarteko eta bukaerako ebaluazioa prestatzea eta inplementatzea, Eusko Jaurlaritzak hartarako emandako irizpideak kontuan hartuz.
- Euskarari lotutako legedia udal legedira egokitzea.

UDALERRIRA BEGIRAKOAK

- Udalerrira begirako euskara sustatzeko plana diseinatzea, udalerri euskaldunetarako UEMAk oinarri dituen lan ildoen baitan.

- Udalerrira begirako planean UEMAren egitasmoa txertatzea.
- ESEPen urtean urteko kudeaketa planak proposatzea eta jarraipena egitea.
- Euskara batzordean herritarren parte hartzea bermatzea.
- Herritarrentzako edo herriko eragileentzako udalak atera ditzakeen dirulaguntza tramitazioen deialdiak egin eta laguntzak kudeatzea.
- Herriko eragileak euskara normalizatzeko prozesuan parte sentitzeko bidea egitea.

KOORDINAZIO GUNEAK ETA KOMUNIKAZIO LANAK

- Herriko euskalgintzarekin eta eragileekin esparruz esparruko koordinazioa bermatzea, beharrezkoa den kasuetan.
- UEMArekin etengabeko harremana izatea.
- UEMAko DEIADARKA foroan parte hartzea.
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta bereziki Alkarbiderekin harremana izatea eta handik antolatutako foroetan parte hartzea.
- HPSrekin harremana izatea eta handik antolatutako foroetan parte hartzea.
- Udaleko komunikazio balibideei euskara arloko gaien komunikazio eraginkorra helaraztea, eta landuko dela bermatzea.

2- ZERBITZUAREKIKO EZAUGARRI TEKNIKO ETA METODOLOGIKOAK

Zerbitzuaren kudeaketa proposamenean, garrantzia handia emango zaio parte hartzea bermatzeari eta genero ikuspegia txertatzeari.

Zerbitzua zuzenean kudeatzen teknikari bat egongo bada ere, aholkularitza, metodologia edo tresnei dagokienez, zerbitzua ematen duen taldearen babesa ere baloratuko da.

Teknikariaren dedikazioari dagokionez: bi goizetan (gutxienez 5 ordu egun bakoitzeko) Lekeitioko Udaletxean lanean aritu behar izango da. Horrez gain, nahiz eta arratsaldeetan izan, koordinazio, hausnarketa edo lan-guneetan parte hartu beharko du; hain zuzen ere, Euskara Batzordean. Asteko gutxiengo dedikazioa 20 ordukoa izango da.

Zerbitzuaren arduran jarriko den teknikariaren perfilari dagokionez:

a. Hizkuntzen Europako Marko Bateratuko C2 maila izan beharko du.
b. Graduko, lizentziaturako, ingeniaritzako edo arkitekturako titulua izan beharko du.
c. Euskalgintzan ibili izana ziurtatu beharko du, horretan emandako ordu kopurua zehaztuz.